

Zazpi jauziak euskararen alde

**Araban euskaraz bizi nahi dugu, baina legeak zapaltzen gaitu.
Euskarak jauzia egin behar du, bigarren mailatik lehenera.
“Euskara jalgi plazara eta mundura”, dantza euskaraz (e)ta euskararen alde.
Zazpi jauziak justizia gauzatzeko, zazpiek jauzi askatasunerako.**

Bat

**Bizkaian euskeraz bizi gura do(g)u, baina legeak zapaltzen gaitu.
Euskerak jauzia egin behar dau, bigarren mallatik lehenera.
“Euskara jalgi plazara eta mundura”, dantza euskeraz (e)ta euskeraren alde.
Zazpi jauziak justizia gauzatzeko, zazpiak jauzi askatasunerako.**

Bi

**Gipuzko(a)n euskeraz bizi nahi dina(g)u, baina legeak zapaltzen gaitin.
Euskerak jauzia egin behar din, bigarren mailatik lehenera.
“Euskara jalgi plazara eta mundura”, dantza euskeraz (e)ta euskeraren alde.
Zazpi jauziak justizia gauzatzeko, zazpiak jauzi askatasunerako.**

Hiru

**Lapurdin eskuaraz bizi nahi dia(g)u, baina legeak zapaltzen gaitik.
Eskuarak jauzia egin behar dik, bigarren mailatik lehenera.
“Euskara jalgi plazara eta mundura”, dantza eskuaraz (e)ta eskuararen alde.
Zazpi jauziak justizia gauzatzeko, zazpiek jauzi askatasunerako.**

Lau

**Nafarroa Be(he)rean eskualdunek, eskuaraz bizi nahi baina ezin.
Eskuarak jauzia egin behar d(i)xi, bigarren mailatik lehenera.
“Euskara jalgi plazara eta mundura”, dantza eskuaraz (e)ta eskuararen alde.
Zazpi jauziak justizia gauzatzeko, zazpiek jauzi askatasunerako.**

Bost

**Nafarroa Garaian eskualdunek, eskuaraz bizi nahi baina ezin.
Eskuarak jauzia egin behar du, bigarrenetik le(he)nbizikorat.
“Euskara jalgi plazara eta mundura”, dantza eskuaraz (e)ta eskuararen alde.
Zazpi jauziak justizia gauzatzeko, zazpiek jauzi askatasunerako.**

Sei

**Xibero(a)n gük eüsk(ar)az bizi nahi dügü, bena Frantziak zapaltzen gitaü.
Eüsk(ar)ak jauzi eijerra (eg)in behar dü, bigerren mailatik lehene(a)lat.
“Euskara jalgi plazara eta mundura”, dantza eüsk(ar)az eta eüskararen alte.
Zazpi jauziak jüstizia gaüzatzeko, zazpiek jauzi askatarzüna(r)entako.**

Zazpi